

UGALDE, AMA GAXO DAGO.—Martin Ugalde adiskidea: oraintsu, «La Voz de España»-ren Correo de las Letras sailean (1970-XII-6-koa) dei antzerako bat izan duzu, zure *Las tres caras de Dios*-i aipamena egitean. Erderaz anitz ederrik emateko gauza omen zara, eta bildur dira gure inguruan galduko ote zaran. Erderazko literatoak beti pentsatu dute euskeraz ez dala posible ezer interesanterik ematea. Guk, erderazko idazlerik, euskeratik erderara ondo itzultzeko gauza direnak anitz nahi genituzke, ilunpean dauden (gure artean bakarrik daudelako) lan interesante asko behar bezala itzuli ahal izateko. Orduan konturako lirake euskerazko literatura non dagoen, orduan konturatuko herbesteetan hemengo gauzak erderaz ematen dituzteen erdal-idazleetatik aparte ere ba dala zerbahit merezigarri.

Zuk behintzat, hartu duzun bidetik, gauza on asko eskaini ahal duzula iduritzen zaigu. Erdal literaturak zerbahit galduko luke behar bada, baina euskal literaturak ez du ezer galduko. Eta, guk, euskal literatura nahi dugu, herria, Euskal Herria, bere nortasun osoan gordeko ba dugu.

Ez ahaztu antzerki hari eman zenion izenburuakin: *Ama gaxo dago*. Eta lamien deieri ez jaramonik egin.

Erderaz euskeraren alde esaten diren hitzak, gehienetan hitz hutak. Guk exenploa eman bear dugu, Martin.

«Ama gaxo dago». Euskerazko osagarriak behar ditu. Erderazko hiletarik ez.

Juan SAN MARTIN.

PIARRES LAFITTE LUHOSOARRA.—Fitxak erabilten ditugunori, inoiz, sorginkeriak gertatzen zaizkigu. Nork daki nondik, beti sartzen zaigu fitxeroaren morroilo-zilotik sorginen bat, behar ez diren nahasketak sortzeko. Baina siniskerien kontra «ez zeok hamairurik» esanez behin baino gehiagotan altxatu geranok, ezin bota sorgineri errurik. Maiz, konturatu gabe, norberaren buruak oker jokatu digulako.

Beraz, hau izan da Piarres Lafitte idazle euskalariarekin gertatu zaidana. Nahiago nuen sorginen bati kulpa bota, baina supertizioak ontzat ez ditudala hartzen zenbait neronek aitortu dudanez gero, ez

dut beste erremediorik eta nere buruari bota behar erru guziak.

Lerro hauen bidez, hainbeste aldiz besteeri adabakiak egiten jardun naizen sail honetan, nere hutsa ere publikoki aitortzen dut. Hau da, lehen aldiz *Escritores euskéricos* (1968) kataloguan eta gero *Hegatsez* (1971) izeneko hitz-lauzko bilduman, bietan, Lafitte jauna Frantziako Louhois-en sortua zala jarri nuen, eta ez da horrela. Oker hori zuzentzeko esan beharrean naiz, Piarres Lafitte Ithurralde jauna Lapurdiko Luhosokoa dala.

Frantziako Louhois-koak ez dute asko sentitu hain gizon ohoretsua beren herrikoa ez izateaz, zeren izen hortako herririk ez bait da. Luhosokoei barka eskatzen diet. Eurokin batean, nik ere nahiago nuen gizon handi hau gureagoa izatea, eta hala dala erabakitzea pozgarri zait.

J. S. M.

